

PIZTIAK BIZI DIREN LEKUAN



TESTUA ETA IRUDIAK MAURICE SENDAK






PIZTIAK BIZI DIREN LEKUAN

TESTUA ETA IRUDIAK MAURICE SENDAK


kalandraka




Gau batez otso-larrua jantzi zuen Maxek




eta hainbat gaiztakeria egin zituen.



Amak esan zion: PIZTIA EZ BESTEA!
Eta Maxek erantzun: JAN EGINGO ZAITUT!
Amak, noski, ohera bidali zuen afaldu gabe.



Gau hartan basoa sortu zen Maxen gelan.



Eta handitu egin zen



**handitu zen sabaian mahatsondoak sortzeraino
eta gelako paretak mundu bat bihurtu ziren.**




**eta itsaso harrotuak ontzi bat ekarri zuen Maxentzat
eta uhinetan aurrera abiatu zen gau eta egun**





asterik aste
ia urte betez
piztiak bizi diren lekurantz







eta piztiak bizi diren lekura heldu zenean



orro lazgarriek eta hortz karraskek agurtu zuten



**Maxek IXO! esan zuen arte
eta mantsotu egin zituen majia-potajia eginda:**



**bere begi horiak kliskatu gabe begiratu zien
eta izututa esan zioten bera zela piztiarik handiena**



eta piztien errege izendatu zuten.



Eta orain!, egin zuen oihu Maxek, hasi dadila festa!
















**Aski da! esan zuen Maxek,
eta ohera bidali zituen piztiak afaldu gabe, eta Max,
piztien erregea, aspertu egin zen bakardadean;
maitatuko zuten lekuren batean egon nahi zuen.**



**Orduan munduaren beste aldetik
zeterren jaki goxo baten usaina aditu zuen
eta geroztik ez zuen gehiago piztiak bizi diren
lekuko errege izan nahi.**



**Baina piztiek oihu egin zioten: ez zaitezela joan,
mesedez! Jan egingo zaitugu. Asko maite zaitugu.
Eta Maxek: ez!**




Piztiek orro egin zuten lazgarri,
karraska eragin zieten haginei,
zabaldtu zituzten begi izugarriak
eta erakutsi zituzten atzapar zorrotzak.
Baina Max ontziratu egin zen eta adio esan zien.

**Eta ia urte bete ibili zen
uhinetan barrena
asterik aste**





**gau eta egun bere gelaraino.
Hantxe zeukan afaria,**



eta beroa zegoen oraindik.

amets egiteko liburuak



ISBN 978-84-8464-724-9



9 788484 647249